

## **APARKABISA BIZKAIKO GARRAIO GUNEA CENTRO DE TRANSPORTES DE BIZKAIA, S.A.**

### **Sozietatearen izena**

APARKABISA Bizkaiko Garraio Gunea Centro de Transportes de Bizkaia, S.A.

### **IFK**

A01024231

### **Izaera**

Sozietate anonimoa.

### **Kontabilitate-araubidea**

Pribatua.

### **Aurrekontu-araubidea**

Gutxi gorabeherakoa.

### **Sorrera**

Erakundea Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa gisa eratu zen [«Bizkaiko Kamioien Kokaleku Bortxatuak, A.B.-Aparcamiento disuasorio de camiones de Vizcaya, S.A.» Sozietate Anonimo Publikoaren eraketari buruzko abenduaren 20ko 242/1982 DEKRETUAREN](#) bidez, 1983ko martxoaren 2an emandako eskritura publikoaren bidez eta, urte bereko ekainaren 15ean, Merkataritza Erregistroan erregistratuta.

Sozietatearen jardura nagusia Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumena bihurtzearen ondorioz, 1985eko otsailaren 27ko Transferentzien Batzorde Mistoaren akordioaren arabera, ([Autonomia Erkidegoko Erakunde Orokorrak garraioaren inguruko zerbitzuak Bizkaiko Lurralde Historikoari emateko martxoaren 5eko 56/1985 DEKRETUA](#)), sozietateak Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa publikoaren izaera galtzen du, [1985eko abenduaren 3ko 375/1985 DEKRETUAN ezarritako xedapenaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren izaera publikoaren galeraren inguruan, Lurralde Politika eta Garraio eta Ekonomia eta Ogasun sailburuek proposatuta, «Bizkaiko Kamioien Kokaleku Bortxatuak A.B.- Aparcamiento Disuasorio de camiones de Vizcaya S.A.» sozietate anonimoan.](#), une horretatik aurrera, Bizkaiko Foru Aldundiko enpresa publiko bihurtuta.

2008ko urriaren 31n, Administrazio Batzordeak sozietate horren izen soziala aldatzea proposatu zion Batzorde Orokorrari, Bizkaiko Kamioien Kokaleku Bortxatuak, A B. - Aparcamiento Disuasorio de Camiones de Vizcaya, S.A. izena APARKABISA Bizkaiko Garraio Gunea Centro de Transportes de Bizkaia, S.A. izenarengatik ordezkaturik.

### **Sail-atxikipena**

Ingurumena eta Lurralde Politika.

### **EJSN**

5221 Lurreko garraioarekin uztartutako jarduerak.

### **Sozietatearen helburua**

Sozietatearen helburua merkantzien biltegiatze-zentral integratuen eta errepide bidezko garraio-ibilgailuen aparkalekuen sustapena, prestakuntza eta ustiapena da, Bizkaiko Lurralde Historikoan.

### **Sailkapena kontabilitate nazionalan**


Sozietate ez-finantzario publikoak-Tokiko korporazioak.

## Kapital soziala

26.042.157 €

### Kapital sozialaren osaera

Bizkaiko Foru Aldundia	% 79,52
EAEko Administrazio Orokorra	% 19,96
Barakaldoko Udala	% 0,29
Trapagarango Udala	% 0,18
Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbera	% 0,05



### 2013ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	30.514.247 €
Ondare garbia	22.786.734 €
Negozio-kopuruen zenbateko garbia	3.116.162 €
Batez besteko langile-kopurua	46,34

### Sozietatearen helbidea

El Juncal, z.g. - 48510 Trapagaran (Bizkaia).

### Webgunea

[www.aparkabisa.com](http://www.aparkabisa.com)